

Aurrekontuak

2018

Presupuestos



**ERAKUNDE AUTONOMO
ADMINISTRATIBOAK
ETA PARTZUERGOAK**

9

**ORGANISMOS AUTÓNOMOS
ADMINISTRATIVOS
Y CONSORCIOS**

- KONTSUMOBIDE
- LANBIDE
- Lehiaren Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca de la Competencia
- GOGORA
- HAURRESKOLAK

Aurrekontuak

2018

Presupuestos

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA EKONOMIA
SAILA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ECONOMÍA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2018

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan
aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>
Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo
de la red *Bibliotekak* del Gobierno Vasco: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

Argitaraldia / Edición: 1.a 2018ko urtarrila / 1ª, enero 2018

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa / Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco
Ogasun eta Ekonomia Saila / Departamento de Hacienda y Economía

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea / Edita: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia / Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa / Imprime: Eusko Jaurlaritzaren Inprenta eta Erreprografia Zerbitzua / Servicio de Imprenta y Reprografía del Gobierno Vasco

L. G. / D. L.: BI 900-1983

Erakunde Autonomo Administratiboak eta Partzuergoak

Organismos Autónomos Administrativos y Consorcios

9 Alea
Tomo 9

Aurkibidea / Índice :

7	KONTSUMOBIDE-KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA.....	1
	<i>KONTSUMOBIDE-INSTITUTO VASCO DE CONSUMO</i>	
1.	Instituzioaren eta Programaren Memoriak.....	3
	<i>Memoria de la Institución y del Programa</i>	
2.	Gastuen Egoera-orria	29
	<i>El Estado de Gastos</i>	
3.	Diru-sarreraren Egoera-orria	37
	<i>El Estado de Ingresos</i>	
4.	Gastuen Laburpenak	41
	<i>Resúmenes de Gastos</i>	
5.	Diru-sarreraren Laburpenak	53
	<i>Resúmenes de Ingresos</i>	
6.	Aurrekontu-plantilla.....	61
	<i>Plantilla Presupuestaria</i>	
8	LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA	65
	<i>LANBIDE-SERVICIO VASCO DE EMPLEO</i>	
1.	Instituzioaren eta Programen Memoriak.....	67
	<i>Memoria de la Institución y de los Programas</i>	
2.	Gastuen Egoera-orria	141
	<i>El Estado de Gastos</i>	
3.	Diru-sarreraren Egoera-orria	167
	<i>El Estado de Ingresos</i>	
4.	Gastuen Laburpenak	177
	<i>Resúmenes de Gastos</i>	
5.	Diru-sarreraren Laburpenak	191
	<i>Resúmenes de Ingresos</i>	
6.	Aurrekontu-plantilla.....	199
	<i>Plantilla Presupuestaria</i>	
9	LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZA	203
	<i>AUTORIDAD VASCA DE LA COMPETENCIA</i>	
1.	Instituzioaren eta Programaren Memoriak.....	205
	<i>Memoria de la Institución y del Programa</i>	
2.	Gastuen Egoera-orria	217
	<i>El Estado de Gastos</i>	
3.	Diru-sarreraren Egoera-orria	223
	<i>El Estado de Ingresos</i>	
4.	Gastuen Laburpenak	227
	<i>Resúmenes de Gastos</i>	
5.	Diru-sarreraren Laburpenak	237
	<i>Resúmenes de Ingresos</i>	
6.	Aurrekontu-plantilla.....	245
	<i>Plantilla Presupuestaria</i>	
10	MEMORIAREN, BIZIKIDETZAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN INSTITUTUA.....	249
	<i>INSTITUTO DE LA MEMORIA, LA CONVIVENCIA Y LOS DERECHOS HUMANOS</i>	
1.	Instituzioaren eta Programaren Memoriak.....	251

	<i>Memoria de la Institución y del Programa</i>	
2.	Gastuen Egoera-orria..... <i>El Estado de Gastos</i>	267
3.	Diru-sarrerren Egoera-orria <i>El Estado de Ingresos</i>	275
4.	Gastuen Laburpenak..... <i>Resúmenes de Gastos</i>	279
5.	Diru-sarrerren Laburpenak <i>Resúmenes de Ingresos</i>	289
6.	Aurrekontu-plantilla <i>Plantilla Presupuestaria</i>	297
II	PARTZUERGOEN AURREKONTUA..... PRESUPUESTOS DE LOS CONSORCIOS	301
1.	Gastuen Laburpenak..... <i>Resúmenes de Gastos</i>	303
2.	Diru-sarrerren Laburpenak <i>Resúmenes de Ingresos</i>	309
1	HAURRESKOLAK PARTZUERGOA CONSORCIO HAURRESKOLAK	315
1.	Instituzioaren eta Programaren Memoriak <i>Memoria de la Institución y del Programa</i>	317
2.	Gastuen Egoera-orria..... <i>El Estado de Gastos</i>	327
3.	Diru-sarrerren Egoera-orria <i>El Estado de Ingresos</i>	333
4.	Gastuen Laburpenak..... <i>Resúmenes de Gastos</i>	337
5.	Diru-sarrerren Laburpenak <i>Resúmenes de Ingresos</i>	349
6.	Aurrekontu-plantilla <i>Plantilla Presupuestaria</i>	357



7 KONTSUMOBIDE-KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA
KONTSUMOBIDE-INSTITUTO VASCO DE CONSUMO



1. **Instituzioaren eta Programaren Memoriak**
Memoria de la Institución y del Programa

KONTSUMOBIDE - KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA**KONTSUMOBIDE - INSTITUTO VASCO DE CONSUMO****1. SARRERA**

9/2007 Legearen bitartez Kontsumobide Kontsumoko Euskal Institutua sortu zen Eusko Jaurlaritzan kontsumoaren arloko eskumena duen sailera atxikitako erakunde autonomo gisa eta kontsumitzaileak eta erabiltzaileak aldeztearen eta babestearen arloan Jaurlaritzaren politikak zehaztea, planifikatzea, bultzatzea eta betearaztea helburu izanik.

Uztailaren 12ko 159/2011 Dekretuan Kontsumobide Kontsumoko Euskal Institutuaren egitura eta antolaketa ezarri ziren.

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua, gaur egun, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari atxikirik dago.

2. ERAKUNDE AUTONOMOAREN JARDUERA OROKORRAK

Institutuaren egitura finkatu da dagokion Dekretuaren bitartez; honako administrazio-unitate hauek osatzen dute egitura hori: Plangintza, Azterketa, Informazio eta Prestakuntzarako Unitatea; Erreklamazioetarako, Bitartekaritzarako eta Arbitrajerako Unitatea; Merkatuaren Ikuskaritza eta Kontrolerako Unitatea, eta Zerbitzu Orokorren Unitatea.

Kontsumobidek onetsi du 2014-2018 Plan Estrategikoa, eta dokumentu horren bidez identifikatu ditu epealdirako erronka handiak; 6 helburu estrategiko, 29 jarduera-ildo eta 96 ekintza dira guztira, eta urtero ezarriko dira lehentasunak. Hortaz, urteko Kudeaketa Plana prestatuko da, jarraipen- eta ebaluazio-ereduaren arabera, eta ekitaldi bakoitzean garatuko diren eginkizun zehatzak definituko dira, egikaritzeko baliabideen zuzkidura eta guzti.

Plan Estrategikoan jasota dago Kontsumobideren xedea: "Euskadiko kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babestea", bai eta 2018rako ikuspegia edo asmoa ere, honela laburbiltzen dena: "(...) kontsumoaren alorrean erreferente izan (...) gizarteak baliabide erabilgarri eta beharrezko gisa ikustea (...) Proiektuarekin konpromisoa erakutsi eta erakundeko helburuekin bat egiten duen profesional-taldea edukiko du (...) Halaber, Kontsumobidek aliantza estrategikorako sarea edukiko du".

Plan Estrategikoak sei helburu hauek jasotzen ditu:

1. Beharrian eta joera berrietan oinarritutako informazio eta prestakuntza bizi eta eraginkorra.
2. Kontsumo-gatazkak modu eraginkor eta efizientean ebaztea.

1. INTRODUCCIÓN

La Ley 9/2007, crea Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo, como un organismo autónomo administrativo adscrito al Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de consumo, con el objetivo de definir, planificar, impulsar y ejecutar las políticas del Gobierno Vasco en materia de defensa y protección de las personas consumidoras y usuarias.

El Decreto 159/2011, de 12 de julio, establece la estructura y organización de Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo.

Actualmente Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo está adscrito al Departamento de Turismo, Comercio y Consumo.

2. ACTIVIDADES GENERALES DEL ORGANISMO AUTÓNOMO

La estructura del Instituto, establecida mediante el correspondiente Decreto, viene determinada por las siguientes unidades administrativas: La Unidad de Planificación, Estudios, Información y Formación, la Unidad de Reclamaciones, Mediación y Arbitraje, la Unidad de Inspección y Control de Mercado y la Unidad de Servicios Generales.

Kontsumobide tiene aprobado su Plan Estratégico 2014-2018, identificando los grandes retos para este periodo y definiendo 6 objetivos estratégicos, 29 líneas de actuación y 96 acciones que anualmente serán priorizadas y sobre las cuales se elaborará, conforme al modelo de seguimiento y evaluación, un Plan de Gestión anual que definirá las tareas concretas a desarrollar en cada ejercicio, con dotación de recursos para llevarlas a efecto.

El Plan Estratégico recoge la Misión o razón de ser de Kontsumobide: "Proteger a las personas consumidoras y usuarias de Euskadi", así como la Visión o aspiración de cara al año 2018 que se resume en: "(...) ser referente en el ámbito de consumo, (...) ser percibido como un recurso útil y necesario, (...) dotado de un equipo de profesionales comprometidos/as con el Proyecto y alineados/as con los objetivos de la organización y (...) dotado al mismo tiempo de una red de alianzas estratégicas.

Los seis objetivos del Plan Estratégico son:

1. Información y formación ágil, eficaz y orientada a necesidades y nuevas tendencias.
2. Resolución eficaz y eficiente de conflictos de consumo.

3. Merkatuan presentzia, eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak errespetatzen dituzten enpresak.
4. Aliantza sendoen sarea, Kontsumobideren kontsumo-politika eta helburuekin bat datorrena.
5. Profesional-taldea, etengabeko hobekuntza eta berrikuntza.
6. Ospea, irudia eta kanpo-proiektzioa.

3. Presencia en el mercado y empresas respetuosas con los derechos de las personas consumidoras y usuarias.
4. Red de alianzas fuertes y alineadas con las políticas de consumo y objetivos estratégicos de Kontsumobide.
5. Equipo de profesionales, mejora continua e innovación.
6. Notoriedad, imagen y proyección exterior.

3. 2017an GAUZATUTAKO JARDUERA NAGUSIAK

3. PRINCIPALES ACTIVIDADES REALIZADAS DURANTE EL 2017

3.1. BEHARRIZAN ETA JOERA BERRIETAN OINARRITUTAKO INFORMAZIO ETA PRESTAKUNTZA BIZIA

Kontsumobiden Euskara Erabilera Normalizatzeko Plana garatzen dihardugu, kontsumitzaile eta erabiltzaileei arreta bi hizkuntza ofizialetan emango zaiela bermatzeko. Eusko Jaurlaritzak ezarritako plangintzaaldiaren barnean murgilduta gaude, eta bost urterako gure plan estrategikoa urteroko kudeaketa planetan gauzatzen da.

Halaber, prentsa-oharrak prestatu dira, kontsumoaren alorreko informazio interesgarriak eta albistek hedatzeko. Aldi berean blogean eta webean artikulak argitaratu dira.

Liburuxkak eta argitalpenak egin eta informazio-bulego guztietan banatu dira, bai Institutuaren beraren informazio-bulegoetan, bai udalen mendekoetan, bai eta kontsumitzaileak babestearekin lotutako elkarte eta sektoreen bitartez ere.

Hiru lurralde-zerbitzuetatik erantzun zaie egindako kontsulta guztiei, aurrez aurre, telefono bidez, edo webgunearen bitartez.

Kontsumobideren webgunearen mugikorretarako egokitzapena hasi da. Aldi berean, bisiten kopuruak gora egin du urtean zehar.

Nabigazio intuitiboagoa bultzatzea helburu hartuta, eta kontsumoaren alorreko kudeaketan eta prestakuntzan laguntzea sustatze aldera, Kontsumobideren webguneko prestakuntza-arloko informazio guztia nabarmen berregituratu da.

Gizarte-sareak dinamizatu dira, herritarrengana gehiago hurbiltzeko eta haien parte-hartzea sustatzeko. Kontsumobideren bloga berriro martxan jarri da.

Kontsumobideren prestakuntza-jardueren edukiak berrikusi eta egokitu dira. Halaber, ikastetxeetan egindako prestakuntza-jardueren kopuruak gora egin du, bai eta parte hartu duten ikastetxeen kopuruak ere.

3.1. INFORMACIÓN Y FORMACIÓN ÁGIL Y ORIENTADA A NUEVAS NECESIDADES Y TENDENCIAS

Se ha continuado con el desarrollo del Plan de Normalización del Uso del Euskara de Kontsumobide para garantizar la atención bilingüe a las personas consumidoras. Kontsumobide está inmerso en la planificación fijada por el Gobierno Vasco, y nuestro plan estratégico quinquenal se materializa en planes de gestión anuales.

A su vez, se han emitido notas de prensa para divulgar información de interés y actualidad en temas de consumo, así como artículos en el blog y en la web de Kontsumobide.

Se han elaborado folletos y publicaciones que se han distribuido en todas las oficinas de información tanto del propio Instituto, como municipales y a través de las asociaciones y sectores relacionados con el área de protección de las personas consumidoras.

Desde los tres Servicios Territoriales se han atendido todas las consultas realizadas, dando respuesta a las mismas de modo presencial, a través de teléfono o vía Web.

Se inicia la adaptación de la web de Kontsumobide a los dispositivos móviles. Simultáneamente el número de visitas ha ido aumentando a lo largo del año.

Con el objetivo de hacer una navegación más intuitiva y favorecer el apoyo en la gestión e impartición de la formación en consumo, se ha reestructurado de forma importante toda la información correspondiente al área de formación de la Web de Kontsumobide.

Se han dinamizado las redes sociales para acercarse más a la ciudadanía, favoreciendo su participación. Se ha puesto de nuevo en marcha el blog de Kontsumobide.

Se han revisado y adaptado los contenidos de las actividades formativas y se han incrementado tanto el número de actividades formativas en centros escolares como el número de centros participantes a las mismas.

Prestakuntza-eskaintza eman da, gurasoentzako hitzaldi jarrita. Prestakuntza horren osagarri gisa, berriazko jardunaldiak antolatu dira, hezitzaileentzat eta/edo irakasleentzat.

Kontsumoari buruzko hezkuntza-material digital berriak argitaratu da ingelesez Lehenengo hizkuntzara zuzenduta.

Bestalde, adinekoei zuzendutako prestakuntza-ekintzak indartu ditugu, abusuzko praktiken aurrean kolektibo hori erasotzeko bereziki erraza baita.

3.2. KONTSUMO-GATAZKAK MODU ERAGINKOR ETA EFIZIENTEAN EBAZTEA

Kontsumitzaileek erreklamazioak aurkeztu dituzte, Kontsumobideren lurralde-zerbitzuak baliatuta, bai eta kontsumitzaileei informazioa emateko udal-bulegoen eta kontsumitzaile-elkarteen bitartez ere.

Kontsumitzaileen erreklamazioak kudeatzeko tresna informatiko berria, telematikoki izapidetzeko aukera ematen duena, funtzionaltasun berriak garatu egin dira.

Kontsumo-gatazkak konpontzeko bitartekotza sustatzeari eutsi dio Kontsumobidek, eta horretarako, erreklamazio gehien izan dituzten enprekin harremanetan jarri da, bitartekotzan jarduteko eta erreklamazioak ebazteko kanal azkar eta efizienteak prestatzea helburu hartuta.

2017an arbitraje-sistema kontsumitzaileen artean hedatzen aritu da Kontsumobide, kontsumo-arbitrajea ezagut dezaten.

Erreklamazio gehien jaso dituzten enprekin harremanak izan dira kanalak ezartzeko, erreklamazioen ebazpena ahalik eta azkarrenen lortze aldera.

3.3. MERKATUAN PRESENTZIA ETA KONTSUMITZAILEEN ETA ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK ERRESPETATZEN DITUZTEN ENPRESAK

Merkatuko produktuak kontrolatzeko ikuskapen-kanpainak planifikatu eta egin dira, indarrean dagoen araudia betetzen dela zaintzeko.

Kontsumitzaileen osasuna edo segurtasuna arriskuan jar zezaketen zenbait produktu aurkitu, geldiarazi, eta, kasu batzuetan, erretiratu dira.

Se ha impartido la oferta de formación mediante charlas dirigidas a padres y madres. Como complemento a esta formación, también se han organizado jornadas específicas dirigidas al personal educador y/o al profesorado.

Se han editado nuevos materiales educativos digitales sobre consumo en inglés dirigidos a Educación Primaria.

Por otro lado, se han potenciado las acciones formativas dirigidas a las personas mayores por ser un colectivo especialmente vulnerable frente a prácticas abusivas.

3.2. RESOLUCIÓN EFICAZ Y EFICIENTE DE CONFLICTOS DE CONSUMO

Se han presentado reclamaciones por parte de las personas consumidoras, utilizando los servicios territoriales de Kontsumobide, así como las Oficinas Municipales de Información a las personas consumidoras y las Asociaciones de Personas Consumidoras.

Se han desarrollado nuevas funcionalidades en la herramienta informática de gestión de las reclamaciones de las personas consumidoras que incorpora la teletramitación de las mismas.

Se ha continuado fomentando la mediación en la resolución de conflictos de consumo y para ello se ha trabajado en establecer contactos con las empresas más reclamadas con el fin de habilitar canales rápidos y eficientes para la mediación y resolución de las reclamaciones.

En el año 2017 se ha incidido en la difusión del sistema arbitral entre las personas consumidoras a fin de que conozcan el arbitraje de consumo.

Se han mantenido contactos con las empresas más reclamadas con el fin de establecer canales que permitan una mayor agilidad en la resolución de las reclamaciones.

3.3. PRESENCIA EN EL MERCADO Y EMPRESAS RESPETUOSAS CON LOS DERECHOS DE LAS PERSONAS CONSUMIDAS Y USUARIAS

Se han planificado y realizado campañas de inspección para el control de los productos en el mercado con el objetivo de vigilar el cumplimiento de la normativa vigente.

Se ha procedido a la localización, inmovilización y retirada (en algunos casos) de productos que podían suponer un riesgo para la salud o la seguridad de las personas consumidoras.

Produktu ez-seguruen alerta-sarea kudeatu da, eta Esportazioak Ikuskatzeko, Zaintzeko eta Arautzeko Zerbitzu Ofizialarekin (SOIVRE, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioari atxikia) koordinatuta, seguruak ez diren produktuak mugan kontrolatzeko.

Arbitraje-sistema hedatzeko zabalkunde-kanpaina egin da, enpresak helburu hartuta, sistemari enpresa gehiago atxikitzea lortzeko.

Erreklamazioak bideratze aldera enpresa batzuekin sinatutako lankidetzak-hitzarmenei eutsi zaie.

3.4. ALIANTZA SENDOEN SAREA, KONTSUMOBIDEREN KONTSUMO-POLITIKA ETA HELBURU ESTRATEGIKOekin BAT DATORRELA

Kontsumitzaileei arreta emateko bulegoa daukaten eta dagokion eskabidea aurkeztu duten 37 toki-erakundeei eman zaizkie laguntzak.

Halaber, irizpideak bateratze aldera, koordinazio-bilerak egin dira kontsumitzaileen informaziorako udal-bulegoekin, eta bulego horiei aholkularitza eman eta laguntzen zaie, planteatzen dituzten kontsultei eta informazio-eskaerei erantzunez.

Diru-laguntzak eman zaizkie Euskadiko kontsumitzaileen 3 elkarteei funtzionamendua, laguntza juridikoa, kontsumo-proiektuak eta berrikuntza teknologikoko proiektuak gauzatzeko.

Esparru-hitzarmenarekin jarraitu da Euskal Herriko Unibertsitatearekin, lankidetzak-esparru bat sortu eta bi erakundeen artean baterako ekimenak garatzeko honako arlo hauetan: gizarte-erantzukizuna, iraunkortasuna, ezagutza-transferentzia, prestakuntza eta balioetan hezteak.

Harremanak eta lankidetzak gauzatu dira Eusko Jaurlaritzako erakunde eta sailen zuzendaritza desberdin hauekin: Emakunde, Osakidetza, Energia, Enplegua eta Gizarte Politikak, Zerga Administrazioa, Zuzendaritza, Hezkuntza eta Nekazaritza, baita Saileko beste arloekin: Turismoa eta Merkataritza ere, batzuetan proiektu zehatzetan parte hartuz, eta beste batzuetan ekintza-ildo berriak proposatuz.

3.5 PROFESIONAL-TALDEA, ETENGABEKO HOBETUNTZA ETA BERRIKUNTZA

2014-2018 Kontsumobideren Plan Estrategikoa onetsi ostean, zuzendaritza-batzordeak 2017ko Urteko Kudeaketa Planaren jarraipena eta ebaluazioa egin du. Halaber, datorren aldirako Plan Estrategikoaren zirriborroa egin du.

Se ha gestionado la red de alerta de productos inseguros y en coordinación con el SOIVRE (Servicio Oficial de Inspección, Vigilancia y Regulación de las Exportaciones) adscrito al Ministerio de Economía y Competitividad se han realizado actuaciones al objeto de controlar productos inseguros en aduanas.

Se ha realizado una campaña de difusión del Sistema Arbitral dirigida a las empresas con el objetivo de lograr nuevas adhesiones al mismo.

Se han mantenido los convenios de colaboración suscritos con diferentes empresas para la resolución de las reclamaciones.

3.4. RED DE ALIANZAS FUERTES Y ALINEADAS CON LAS POLÍTICAS DE CONSUMO Y OBJETIVOS ESTRATÉGICOS DE KONTSUMOBIDE

Se han otorgado ayudas a las 37 entidades locales que, disponiendo de una oficina de atención a las personas consumidoras, han presentado la correspondiente solicitud.

Asimismo, y con el fin de aunar criterios, se han celebrado reuniones de coordinación con las oficinas municipales de información a las personas consumidoras (OMICs) y se continúa realizando la función de asesoramiento y acompañamiento de estas oficinas, atendiendo las demandas de información y consultas que puedan plantear.

Se ha otorgado ayuda a las 3 Federaciones de Personas Consumidoras para funcionamiento, asistencia jurídica, realización de proyectos de consumo y realización de proyectos de innovación tecnológica.

Se ha mantenido el convenio con la Universidad del País Vasco con el objeto de crear un marco de colaboración para el desarrollo de iniciativas conjuntas a llevar a cabo entre ambas partes en el ámbito de la responsabilidad social, la sostenibilidad, la transferencia de conocimiento, la formación y la educación en valores.

Se ha mantenido contacto y colaboraciones con otros Organismos y diferentes direcciones de los Departamentos del Gobierno Vasco como: Emakunde, Osakidetza, Empleo y Políticas Sociales, Dirección de Administración Tributaria, Educación y Agricultura, así como con las otras áreas del Departamento: Turismo y Comercio, participando en algunos casos en proyectos concretos y en otros casos, proponiendo nuevas líneas de acción.

3.5. EQUIPOS DE PROFESIONALES, MEJORA CONTINUA E INNOVACIÓN

Tras la aprobación del Plan Estratégico de Kontsumobide 2014-2018 se ha realizado, desde el Comité de Dirección, el seguimiento y la evaluación del Plan de Gestión Anual 2017 y se ha realizado el borrador del nuevo Plan Estratégico para el próximo periodo.

Euskararen erabilera lan-hizkuntza gisa areagotzeko baliabideak eskaini dizkiegu langileei: prestakuntza, aholkularitza, euskarazko testuen zuzenketak, langileen barne-harremanetan euskararen erabilera sustatzeko esku-hartzeak, etab.

Hainbat ikastaro tramitatu eta kudeatu dira Kontsumobideko langileei Prestakuntza eta erreziklajea emateko, arlo ezberdinetako prestakuntza-beharrei erantzuna emateko.

Kontsumo arbitrajea kudeatzeko aplikazio informatiko berri bat garatu da, bai kontsumitzaile eta enpresei teletratimatazioa ahalbidetuz.

Kontsumotegiaren kudeaketarekin jarraitu da. Errepositorio horrek kontsumoaren alorreko albisteak eskura jarriko ditu, dokumentuen erreferentziak emanez; horrenbestez, astero hedatuko dira albiste horiek kontsumitzaileak babesteko zereginetan diharduten profesionalen artean.

3.6. OSPEA, IRUDIA ETA KANPO-PROIEKZIOA

Kontsumoaren alorreko gomendioak hedatzeko zabalkunde-kanpaina egin da irratian, kontsumitzailei eta erabiltzailei informazio egoki eta eguneratuta emateko.

Prentsa-oharrak prestatu dira, kontsumoaren alorreko informazio interesgarriak eta albisteak hedatzeko. Halaber, Kontsumobidearen webgunean eta blogean artikulua argitaratu dira.

Beste autonomia-erkidego batzuekin harremanak egin dira, kontsumitzaileak babesteko proiektuetan lankidetzan jarduteko asmoz.

Kontsumobidek (NEPIM) kontsumo jasangarri eta arduratsua sustatzeko Europako sarearen ekintzetan parte hartu du.

4. 2018. URTERAKO HELBURU OROKORRAK

2014-2018 Kontsumobideren Plan Estrategikoak 6 helburu estrategiko ezartzen ditu, Institutuaren xedearen adierazpide zehatz gisa. Honako hauek dira:

- Beharrian eta joera berrietan oinarritutako informazio eta prestakuntza bizi eta eraginkorra.
- Kontsumo-gatazkak modu eraginkor eta efizientean ebaztea.
- Merkatuan presentzia, eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak errespetatzen dituzten enpresak.

Hemos ofrecido al personal diferentes recursos para aumentar el uso del euskera como lengua de redacción: formación, asesoría, corrección de textos de euskera, puesta en marcha de distintas intervenciones para que el uso del euskera aumente en las relaciones internas, etc.

Se han tramitado y gestionado varios cursos para la formación y el reciclaje del personal de Kontsumobide dando respuesta a necesidades formativas en diferentes áreas.

Se ha desarrollado una nueva aplicación informática para la gestión del arbitraje de consumo, permitiendo la teletramitación tanto a las personas consumidoras como a las empresas.

Se ha continuado con la gestión de Kontsumotegia, repositorio que facilitará el acceso a la actualidad de consumo con referencias de documentos que permitirá su difusión semanal a profesionales que trabajan en la protección de las personas consumidoras.

3.6. NOTORIEDAD, IMAGEN Y PROYECCIÓN EXTERIOR

Se ha realizado una campaña de difusión de consejos de consumo de radio, para ofrecer una adecuada y actualizada información a las personas consumidoras y usuarias.

Se han emitido notas de prensa para divulgar información de interés y actualidad en temas de consumo, así como artículos en la web y blog de Kontsumobide.

Se han mantenido contactos con otras Comunidades Autónomas con la intención de colaborar en proyectos de protección de las personas consumidoras.

Kontsumobide ha participado en las actividades del NEPIM, la red europea para la promoción del desarrollo sostenible del consumo en las regiones europeas.

4. OBJETIVOS GENERALES PARA EL 2018

El Plan Estratégico de Kontsumobide 2014-2018 establece 6 objetivos estratégicos como expresión concreta de la finalidad que persigue el Instituto. En concreto son:

- Información y formación ágil, eficaz y orientada a necesidades y nuevas tendencias.
- Resolución eficaz y eficiente de conflictos de consumo.
- Presencia en el mercado y empresas respetuosas con los derechos de las personas consumidoras y usuarias.

- Aliantza sendoen sarea, Kontsumobideren kontsumo-politika eta helburuekin bat datorrena.
- Profesional-taldea, etengabeko hobekuntza eta berrikuntza.
- Ospea, irudia eta kanpo-proiektzioa.

Hurrengo aldirako Plan Estrategiko berri bat izango da.

4.1. INFORMAZIO ETA PRESTAKUNTZA ARINA ETA PREMIA ETA JOERA BERRIETARA BIDERATUTA

Kontsumobideren webgunearen, blogaren eta gizarte-sareetako profilen erabilera bultzatuko da, kontsumoaren alorreko informazioa herritarrengana gero eta gehiago helarazteko. Webgunearen gailu mugikorretarako egokitzapena bukatuko da.

Gailu mugikorretarako aplikazioa eguneratuta mantenduko da.

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana garatzen jarraituko dugu eta plangitzarako Plan berria sortuko da. Kontsumitzaile eta erabiltzaileei arreta bi hizkuntza ofizialetan emango zaiela bermatzea izango da xede nagusia: ahoz eta idatziz.

Zundaketak egingo dira, Euskadiko kontsumitzaileen berriazko informazio- eta prestakuntza-premiak ezagutzeko; hartara, jasotako eskaeren arabera eskaintza prestatuko da.

Euskadiko kontsumitzaileei doako prestakuntza emango zaie etorkizunean ere, honako zentro hauetan:

- Kontsumobidek EAEko hiru hiriburuetan dituen prestakuntza-zentroak.
- Kontsumoko programa ibiltarian parte hartzea eskatzen duten Lehen Hezkuntzako ikastetxeak eta Bigarren Hezkuntzako lehenengo zikloko ikastetxeak.
- Eskainitako programan parte hartzea eskatzen duten pertsona adinduen zentro edo kolektiboak.

4.2. KONTSUMOKO GATAZKAK MODU ERAGINKORREAN ETA EFIZIENTEAN KONPONTZEA

Erreklamazioen eta arbitraje-eskaeren telematikoaren erabilera sustatuko da eta arbitraje-eskaeren tetramitazioa martxan jarriko da, sistema zaluagoa eta operatiboagoa abian jarrita, kontsumitzaileek kanal hori gehiago erabil dezaten.

- Red de alianzas fuertes y alineadas con las políticas de consumo y objetivos estratégicos de Kontsumobide.
- Equipo de profesionales, mejora continua e innovación.
- Notoriedad, imagen y proyección exterior.

Se elaborará un nuevo Plan Estratégico para el próximo periodo.

4.1. INFORMACIÓN Y FORMACIÓN ÁGIL Y ORIENTADA A NUEVAS NECESIDADES Y TENDENCIAS

Se potenciará el uso de la Web, blog y perfiles de redes sociales en que está presente Kontsumobide con el objetivo de acercar aún más la información en materia de consumo a la ciudadanía. Se finalizará la adaptación de la web de los dispositivos móviles.

Se mantendrá actualizada la aplicación para dispositivos móviles.

Kontsumobide continuará desarrollando su Plan de Normalización del Uso del Euskera y elaborará el nuevo Plan de Normalización. El objetivo principal seguirá siendo el de garantizar la atención bilingüe a las personas consumidoras y usuarias: tanto oralmente como por escrito.

Se realizarán sondeos para conocer las necesidades específicas de información y formación de las personas consumidoras en Euskadi que permitan a posteriori realizar una oferta acorde a las demandas recogidas.

Se continuará impartiendo formación gratuita a las personas consumidoras de Euskadi a través de:

- Los tres centros de formación de que dispone Kontsumobide en las tres capitales vascas.
- Los centros escolares de primaria y primer ciclo de secundaria que soliciten participar en el programa itinerante de consumo.
- Los centros o colectivos de personas mayores que soliciten participar del programa ofertado.

4.2. RESOLUCIÓN EFICAZ Y EFICIENTE DE CONFLICTOS DE CONSUMO

Se impulsará la teletramitación de reclamaciones y solicitudes de arbitraje a través de la puesta en marcha de un sistema más ágil y operativo para que las personas consumidoras incrementen la utilización de este canal.

Publikoari arreta ematea eta erreklamazioei erantzutea homogeneizatzeko sistemak ezarriko dira Kontsumobideren bulegoetan, onetsitako protokoloen arabera, erreklamazio eta arbitraje-eskaeren aurkezpena bateratuz.

Kontsumobidera jotzen duten kontsumitzaileen erreklamazioak izapidetzeko denbora murrizteko ahaleginak egingo dira.

Bitartekotzaren eta arbitrajearen aldeko apustuan aurrera egingo da, kontsumoaren alorreko gatazkak konpontzeko sistemak diren aldetik.

Sistema horietako lehenengoari dagokionez, kontsumitzaileen gogobetetzea dakarten bitartekotzen kopurua handitzeko ahaleginak egingo dira.

4.3. MERKATUAN PRESENTZIA ETA KONTSUMITZAILEEN ETA ERABILITZAILEEN ESKUBIDEAK ERRESPETATZEN DITUZTEN ENPRESAK

Ikuskapen-kanpainak planifikatu eta garatuko dira, merkatuan eskainitako produktu eta zerbitzuek indarrean dagoen araudia betetzen dutela eta kontsumitzaileen segurtasuna bermatzen dutela kontrolatzea helburu hartuta. Urteko kanpainen plana diseinatzeko irizpideen artean kontuan hartuko da zer sektore eta jarduera diren gatazkatsuenak edo kontsumitzaileen eta erabiltzaileen ekintzetan eragin handiena dutenak. Aurreko irizpidez gainera, aintzat hartuko dira indarrean jarritako araudi berriak eta lehendik zeuden arauen aldaketak, bai eta produktu bat behin eta berriro alerta-sareetan agertzea edo hari buruzko salaketak jaso izana ere.

Aurrerantzean ere produktu ez-seguruen alerta-sarea kudeatzen jarraituko da, eta Esportazioak Ikuskatzeko, Zaintzeko eta Arautzeko Zerbitzu Ofizialarekin (SOIVRE, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioari atxikia) koordinatutako jarduerak gauzatuko dira, seguruak ez diren produktuak mugan kontrolatzea helburu hartuta.

KIUBekiko lankidetzak arituko da, merkatu-kontrolarekin loturiko ikuskapen-zereginak garatzeko.

Lanbide- eta sektore-elkarteekin eta merkataritzaganbarekin lankidetzan jardutea bultzatzeko ahaleginak egingo dira, kontsumitzaileak babesteko berme handiagoa ekarriko duten ekintzak eta/edo proiektuak bideratzeko sinergiak sortzea helburu hartuta. Besteak beste, lankidetzak-hitzarmenak eta jardunbide egokien kodeak egiteko asmoa dago.

Halaber, web-orrian ageri den enpresentzako atala garatzen jarraituko da, lanerako gune komuna eta enpresentzat baliagarria izango dena lortzeko.

Se implantarán los sistemas de homogeneización en el tratamiento de atención al público y reclamaciones en las distintas oficinas de Kontsumobide conforme a los protocolos aprobados, unificando la presentación de reclamaciones y solicitudes de arbitraje.

Se tratará de disminuir el tiempo de tramitación de las reclamaciones de las personas consumidoras que se dirigen a Kontsumobide.

Se continuará apostando por la mediación y el arbitraje como sistemas de resolución de conflictos en materia de consumo.

Respecto al primero de los sistemas, se trabajará para conseguir incrementar el número de mediaciones satisfactorias para las personas consumidoras.

4.3. PRESENCIA EN EL MERCADO Y EMPRESAS RESPETUOSAS CON LOS DERECHOS DE LAS PERSONAS CONSUMIDORAS Y USUARIAS

Se planificarán y desarrollarán campañas de inspección con el objetivo de controlar que los productos y servicios ofertados en el mercado responden a la normativa en vigor y garantizan la seguridad de las personas consumidoras y usuarias. Entre los criterios para diseñar el plan de campañas anual se tendrá en cuenta qué sectores y actividades son más conflictivos o tienen mayor incidencia en los actos de las personas consumidoras y usuarias. Además, del criterio anterior, se valorará la entrada en vigor de nuevas normativas o modificaciones de las existentes así como el hecho de que un producto de modo reiterado aparezca en redes de alertas o haya sido denunciado.

Se seguirá gestionando la Red de Alerta de productos inseguros y se realizarán actuaciones coordinadas con el SOIVRE (Servicio Oficial de Inspección, Vigilancia y Regulación de las Exportaciones) adscrito al Ministerio de Economía y Competitividad, con el fin de controlar las importaciones de productos inseguros en aduanas.

Se colaborará con las OMCs para el desarrollo de las labores de inspección relacionadas con el control del mercado.

Se tratará de impulsar la colaboración con asociaciones profesionales y sectoriales así como Cámaras de Comercio con la intención de crear sinergias que posibiliten el desarrollo de acciones y/o proyectos que redunden en una mayor garantía en la protección de las personas consumidoras, tales como convenios de colaboración o códigos de buenas prácticas.

Asimismo, se seguirá desarrollando el apartado de la página Web dirigido a empresas con la intención de conseguir un espacio de trabajo común y de utilidad para éstas.

Kontsumoko arbitraje-sistemaren aldeko apustua, gatazkak konpontzeko tresna interesgarria den aldetik, gauzatuko da, sistema horri buruzko zabalkunde- eta informazio-kanpaina eginez, eta sistema horri enpresa gehiago atxikitzea helburu hartuta.

4.4. ALIANTZA SENDOEN SAREA, KONTSUMOBIDEREN KONTSUMO-POLITIKA ETA HELBURU ESTRATEGIKOEKIN BAT DATORRENA

Kontsumitzaileen informaziorako udal-bulegoentzako laguntza ekonomikoen kanalei eutsiko zaie, bai eta kontsumitzaileen elkarreentzako laguntzei ere, eta erakunde horiekiko koordinazioa sendotzeko ahaleginak egingo dira. Halaber, kontsumoaren alorreko berariazko barneko prestakuntza-programa, Kontsumobideko langileak helburu dituen, eskainiko zaie kontsumitzaileen informaziorako udal-bulegoetako eta kontsumitzaileen elkarreentzako langileei ere.

Sendo egingo da Euskadiko kontsumitzaile-elkarteek zenbateko txikiko hitzezko epaiketan defentsa juridikoa eskaintzeko eta kontsumitzaileen eskubideak babesteko bururazte-akzioak emateko.

Gainerako kontsumo-erakundeekiko harremanak indartzea helburu hartuta, beste autonomia-erkidego batzuekin lan-esperientziak trukatzeko planteatuko da.

Eusko Jaurlaritzako beste sail eta erakunde batzuekin lan egingo dugu aurrerantzean ere, kontsumitzaileei eta erabiltzaileei babes hobea emateko ekintza eta proiektuetan.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko Saileko beste zuzendaritzekin lankidetzak izango da, proiektu-zehatzetan edo elkarrekiko ekintza-ildoetan parte hartuz.

4.5. PROFESIONAL-TALDEA, ETENGABEKO HOBEKUNTZA ETA BERRIKUNTZA

2014-2018 Kontsumobideren Plan Estrategikoa onetsi ostean, zuzendaritza-batzordeak 2018ko Urteko Kudeaketa Planaren jarraipena eta ebaluazioa egingo du, bertan jasotako ekintzak betetzen eta jarraitzen direla bermatzeko. Era berean, Plan Estrategiko berri bat jarriko da martxan datorren aldirako.

Institutuko langileen prestakuntza eta birziklatzea bultzatuko da, kontsumoaren alorreko berariazko prestakuntza-premiei erantzunez. Orobat, kontuan hartuko dira beste lanbide-premia batzuk, orokorrak, informatiko edo hizkuntzari dagozkionak (Kontsumobideren Euskararen Erabilera Normalizatzeako Planaren arabera), langileen etengabeko hobekuntza eta gizarte-errealitate berrietara egokitzea bideratzeko, eta euskara lan hizkuntza izatera heltzeko bidean aurrerapausoak emateko.

La apuesta por el Sistema Arbitral de Consumo como herramienta de interés en la resolución de conflictos se concretará en la realización de una campaña de difusión e información de dicho sistema con el objetivo de conseguir más adhesiones empresariales al mismo.

4.4. RED DE ALIANZAS FUERTES Y ALINEADAS CON LAS POLÍTICAS DE CONSUMO Y OBJETIVOS ESTRATÉGICOS DE KONTSUMOBIDE

Se mantendrán canales de ayudas económicas para las Oficinas Municipales de Información a las Personas Consumidoras así como para las Asociaciones de Personas Consumidoras, tratando de fortalecer la coordinación existente con estas entidades. Asimismo, el programa de formación interna específica en materia de consumo dirigida al personal de Kontsumobide se ofrecerá al personal de OMICs y Asociaciones de Personas Consumidoras.

Se reforzará la opción de que, por parte de las Asociaciones de Consumidores de Euskadi, se preste la defensa jurídica en los juicios verbales de menor cuantía y se presenten acciones de cesación en defensa de los derechos de las personas consumidoras.

Con el objetivo de fortalecer la interrelación con el resto de organismos de consumo se planteará un intercambio de experiencias de trabajo con otras Comunidades Autónomas.

Se continuará trabajando con otros departamentos y organismos de Gobierno Vasco en acciones y proyectos que supongan una mejora para la protección de las personas consumidoras y usuarias.

Se colaborará con el resto de direcciones del Departamento de Turismo, Comercio y Consumo, pudiendo participar en proyectos concretos o en líneas de actuación conjuntas.

4.5. EQUIPO DE PROFESIONALES, MEJORA CONTINUA E INNOVACIÓN

Tras la aprobación del Plan Estratégico de Kontsumobide 2014-2018 se realizará desde el Comité de Dirección el siguiente Plan de Gestión Anual 2018 garantizando el cumplimiento y seguimiento de las acciones recogidas. Así mismo, se pondrá en marcha el nuevo Plan Estratégico para el próximo periodo.

Se impulsará la formación y el reciclaje del personal del Instituto dando respuesta a las necesidades formativas específicas de consumo así como aquellas otras necesidades profesionales de carácter general, informático o lingüísticas (acorde al Plan de Normalización de Uso del Euskera de Kontsumobide) de modo que permitan la mejora continua del personal y la adaptación de las nuevas realidades sociales, y se den pasos para que el euskera se convierta en lengua de trabajo.

Azpiegitura teknologikoa eguneratuko da, bai eta Institutuari esleitutako eskumenak eraginkortasunez eta efizientziaz kudeatzeko behar diren garapen informatikoak ere.

4.6. OSPEA, IRUDIA ETA KANPO PROIEKZIOA

Kontsumoaren alorreko aholkuak hedatzeko zabalkunde-kanpainak egingo dira, kontsumitzaileen eskubide eta betebeharrak gogorarazteko.

Kontsumobiak garatutako jardurari buruzko informazioa halaraziko zaio iritzi publikoari, zenbait bitarteko baliatuta: prentsa-oharrak, albisteak eta prentsaurrekoak. Baita Kontsumobideren erakundearen webgunea, bloga eta gizarte-sariak ere.

Kontsumobide EAETik kanpoko beste erakunde batzuekin harreman- eta lankidetzeta-foroetan jardutea bideratuko da.

Kontsumo-alorreko estatu eta europa-mailako beste erakunde batzuekin lankidetzeta sendotuko da, Europako programa eta proiektuetan parte hartu ahal izateko.

Kontsumobideren webgunea beste atari batzuetan eta kanpoko webguneetan egotea bultzatuko da.

Kontsumobideren zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonen gogobetetzea neurtzeko sistema erabiliko da.

Se modernizará la infraestructura tecnológica y los desarrollos informáticos para una gestión eficaz y eficiente de las competencias atribuidas al Instituto.

4.6. NOTORIEDAD, IMAGEN Y PROYECCIÓN EXTERIOR

Se realizarán campañas de difusión de consejos de consumo con el objetivo de recordar los derechos y deberes de las personas consumidoras.

La actividad desarrollada por Kontsumobide será trasladada a través de notas de prensa, noticias, ruedas de prensa, así como a través de la propia Web, blog y las redes sociales.

Se posibilitará la presencia de Kontsumobide en foros de relación y cooperación con otros organismos fuera de la CAE.

Se intensificará la colaboración con otros organismos de consumo de ámbito estatal y europeo al objeto de poder participar en programas y proyectos europeos.

Se impulsará la presencia de la web en otros portales o en entradas de webs externas.

Se utilizará un sistema para medir la satisfacción de las personas que utilizan los servicios de Kontsumobide.

PROGRAMA	PROGRAMA
4432 KONTSUMOBIDE	4432 KONTSUMOBIDE
ARDURADUNA	RESPONSABLE
<u>49 KONTSUMOBIDE – KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA</u>	<u>49 KONTSUMOBIDE – INSTITUTO VASCO DE CONSUMO</u>
KONTSUMOBIDEAREN ZUZENDARIA	DIRECTORA DE KONTSUMOBIDE

MEMORIA

2014-2018 Kontsumobideren Plan Estrategikoak ezartzen du Institutuaren xedea dela “Euskadiko kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babestea”.

2018rako ikuspegi gisa, Kontsumobidek erreferente izan nahi du kontsumoaren alorrean. Horretarako, hurrengo aldirako Plan Estrategiko berria izango da.

Gizarteak baliabide erabilgarri eta beharrezko gisa ikus dezan nahi du Kontsumobidek, kontsumo-ekintzetan gatazkak prebenitu, saihestu, murriztu eta ebazteko. Halaber, kontsumitzaile eta erabiltzaileengan, bai eta enpresa-elkarte eta profesionalengan ere, konfiantza sortzeko gaitasunagatik aintzat hartzea nahiko luke, honako ezaugarri hauek oinarri hartuta:

- Irisgarritasuna, elkarrizketarako gaitasuna, eta elkarrizketa eta bitartekaritzarako prestutasuna.
- Merkatuek hobeto funtziona dezaten eta merkatuetako segurtasuna hobetu dadin laguntzea.
- Jardueretan arintasuna eta eraginkortasuna.
- Helarazten duen informazioaren kalitatea.
- Beharrian eta joera berriei erantzuna emateko proaktibitatea, dinamismoa eta gaitasuna.

El Plan Estratégico para Kontsumobide 2014-2018 establece como Misión del Instituto “Proteger a las personas consumidoras y usuarias de Euskadi”.

Como Visión para 2018 Kontsumobide aspira a ser referente en el ámbito del consumo, para ello se dotará de un nuevo Plan Estratégico para el próximo período.

Kontsumobide quiere ser percibido como un recurso útil y necesario para prevenir, evitar, reducir y solucionar conflictos en los actos de consumo y ser reconocido por su capacidad de generar confianza en las personas consumidoras y usuarias, así como en organizaciones empresariales y profesionales, en base a:

- Su accesibilidad, capacidad de interlocución y predisposición al diálogo y la mediación.
- Su contribución a un mejor funcionamiento y seguridad en los mercados.
- La agilidad y eficacia en sus actuaciones.
- La calidad de la información que transmite.
- Su proactividad, dinamismo y capacidad de respuesta a nuevas necesidades y tendencias.

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana garatzen jarraituko dugu eta Normalizatzeko Plan berria ezarritako lan egingo dugu. Hortaz, kontsumitzaile eta erabiltzaileei arreta bi hizkuntza ofizialetan emango zaiela bermatzea izango da helburu nagusia, baina ez hori bakarrik; izan ere, gainerako honako helburu hauek lortze aldera ere egingo dugu lan: euskera lan-hizkuntza izateko aurrerapausoak egitea euskaraz gero eta gehiago sortuz; herri-administrazioen arteko harremanetan euskara gehiago erabiltzea; eta erakunde-ordezkarien lidergoa indartzea euskararen normalizazio-prozesua erakunde bakoitzaren ohiko jardunean txertatzeko. Helburu orokor hauek transbertsalak dira.

Horretarako, Kontsumobidek proiektuarekin konpromisoa erakutsi eta erakundeko helburuekin bat egingo duen profesional-taldea edukiko du, eta etengabeko hobekuntza eta berrikuntza sustatuko ditu alor guztietan.

Halaber, Kontsumobidek aliantza estrategikoen sarea eratuko du, eta bereziki indartuko ditu EAEko kontsumitzaileak defendatu eta babesteko erakundeekin harremana eta koordinazioa ezartzeko mekanismoak.

Erakundearen xedea eta ikuspegia betetze aldera, 6 helburu estrategiko ezarri dira, Kontsumobideren xedearen adierazle, lortu nahi dena zehazteko ahaleginean.

Horrenbestez, honako jarduera hauek egin nahi dira:

1. INFORMAZIO ETA PRESTAKUNTZA BIZIA, PREMIA ETA JOERA BERRIEN ARABERA BIDERATUA.

Kontsumobideren webgunearen, blogaren eta gizarte-sareetako profilen erabilera bultzatuko da, kontsumoaren alorreko informazioa herritarrengana gero eta gehiago helarazteko. Webgunearen gailu mugikorretarako egokitzapena bukatuko da.

Gailu mugikorretarako aplikazio eguneratuta mantenduko da.

Kontsumobiden Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren garapenarekin jarraituko dugu eta Plan berri bat landuko da, kontsumitzaileei eta erabiltzaileei arreta bi hizkuntzetan emango zaiela bermatzeko.

Zundaketak egingo dira, Euskadiko kontsumitzaileen berriazko informazio- eta prestakuntza-premiak ezagutzeko; hartara, jasotako eskaeren arabera eskaintza prestatuko da.

Euskadiko kontsumitzaileei doako prestakuntza emango zaie etorkizunean ere, honako zentro hauetan:

- Kontsumobidek EAEko hiru hiriburuetan dituen prestakuntza-zentroak.

Se continúa con el desarrollo del Plan de Normalización del Uso del Euskera y se trabajará en la elaboración del nuevo Plan de Normalización. Así pues, junto con nuestro objetivo principal, garantizar la atención bilingüe a las personas consumidoras y usuarias, además se fomentarán los siguientes objetivos: realizar progresos para que el euskera sea lengua de trabajo, creando cada vez más en euskera; utilizar más el euskera en las relaciones entre las administraciones públicas; y reforzar el liderazgo de los y las representantes institucionales para incluir el proceso de normalización del euskera en la actividad habitual de cada entidad. Todos estos objetivos generales son transversales.

Para ello, Kontsumobide contará con un equipo de profesionales comprometidos/as con el Proyecto y alineados/as con los objetivos de la organización, e impulsará la mejora continua así como la innovación en todos los ámbitos.

Asimismo, Kontsumobide se dotará de una red de alianzas estratégicas, fortaleciendo muy especialmente los mecanismos de relación y coordinación con las entidades de defensa y protección de las personas consumidoras de la CAE.

Para dar cumplimiento a la Misión y Visión de la organización se establecen 6 objetivos estratégicos que son la expresión de la finalidad que persigue Kontsumobide tratando de concretar lo que quiere lograr.

Así se pretenden llevar a cabo las siguientes actuaciones:

1. INFORMACIÓN Y FORMACIÓN ÁGIL Y ORIENTADA A NUEVAS NECESIDADES Y TENDENCIAS.

Se potenciará el uso de la Web, blog y perfiles de redes sociales en que está presente Kontsumobide con el objetivo de acercar aún más la información en materia de consumo a la ciudadanía. Se finalizará la adaptación de la web a los dispositivos móviles.

Se mantendrá actualizada la aplicación para dispositivos móviles.

Se continuará con el desarrollo del Plan de Normalización del Uso del Euskera de Kontsumobide y se elaborará el correspondiente al nuevo periodo, para garantizar la atención bilingüe a las personas consumidoras y usuarias.

Se realizarán sondeos para conocer las necesidades específicas de información y formación de las personas consumidoras en Euskadi que permitan a posteriori realizar una oferta acorde a las demandas recogidas.

Se continuará impartiendo formación gratuita a las personas consumidoras de Euskadi a través de:

- Los tres centros de formación de que dispone Kontsumobide en las tres capitales vascas.

- Kontsumoko programa ibiltarian parte hartzea eskatzen duten Lehen Hezkuntzako ikastetxeak eta Bigarren Hezkuntzako lehenengo zikloko ikastetxeak,
- Eskaintako programan parte hartzea eskatzen duten pertsona adinduen zentro edo kolektiboak.

2. KONTSUMO-GATAZKAK ERAGINKORTASUNEZ ETA EFIZIENTZIAZ KONPONTZEA.

Erreklamazioen aurkezpen telematikoaren erabilera sustatuko da eta arbitraje-eskaeren teletramitazioa martxan jarriko da.

Publikoari arreta ematea eta erreklamazioei erantzutea homogeneizatzeko sistemak ezarriko dira Kontsumobideren bulegoetan, onetsitako protokoloen arabera.

Kontsumobidera jotzen duten kontsumitzaileen erreklamazioak izapidetzeko denbora murrizteko ahaleginak egingo dira.

Bitartekotzaren eta arbitrajearen aldeko apustuan aurrera egingo da, kontsumoaren alorreko gatazkak konpontzeko sistemak diren aldetik.

Sistema horietako lehenengoari dagokionez, kontsumitzaileen gogobetetzea dakarten bitartekotzen kopurua handitzeko ahaleginak egingo dira.

3. MERKATUAN PRESENTZIA ETA KONTSUMITZAILEEN ETA ERABILTZAILAILEEN ESKUBIDEAK ERRESPETATZEN DITUZTEN ENPRESAK.

